



## **Smowltech jaio da online erabiltzaileak egiaztatzeko**

- **Webcam bati egingo den erabiltzailearen identifikazio eta aurpegiaren igartzean oinarritutako ikusmen artifizialeko ebazpenean datza**
- **Sistemak % 100ean bermatzen du online sesioan dagoen erabiltzailea bera dela (bai online formazioa jasotzen, bere bankuko kontuen kudeaketa online egiten, online erosten edo jolasten egon)**

**Donostian, 2014ko XXXk XXX.** Online zerbitzuaren beste aldean dagoen erabiltzailea benetan bera dela ziurtatzea eta honela iruzurra ekiditea da Smowltech enpresa teknologikoak finkatu duen helburua. Vicomtech-IK4 teknologi zentroaren babesarekin online erabiltzailearen egiaztapena bermatzeko sistema garatu du.

Egun erabiltzaileen egiaztatzea emandako izen eta pasahitz batean oinarritzen da, horiek partekatu, lapurtu, ahaztu edo galdu daitezkeelarik. Honela gauzak, Internet bidezko formazio, banku transakzio, joko edo erosketak ez dira % 100ean seguruak.

Smowltech eta Vicomtech-IK4k garatu duten sistemak % 100ean bermatzen du online formazioa edo erosketak burutzen ari den pertsona bera dela.

Bezero bakoitzaren beharrei egokitu daitekeen webcam baten bidezko aurpegiaren identifikazio eta ezagutzean oinarritutako ikusmen artifizialeko ebazpen aurreratuan datza.

Sistema osoa cloud computing teknologietan oinarrituta dago eta unibertsala da, hizkuntza, kokapena edota ordu-eremua alde batera utzita, edozein plataformetan sartu daitezke eta beharrezkoa den gauza bakarra webcam-a da.



Bestelako eskakizunik ez duen ebazpena da, erabiltzaileak webcam-a bat izan beharko du besterik ez.

**Smowltech-ek bere bezeroei eskaintzen dien balio erantsia online sesio osoan zehar identifikazioa egiten duela da, ez bakarrik sartzekoan, baizik eta modu jarraian ere.**

Honela, Smowltech online irakaskuntzan bereizten ari da. Egun campus birtual eta e-learning plataformek ez dakite zehatz mehatz zein den ordenagailuaren beste aldean ikasgaia ikasten ari dena eta horregatik ikasleak jasoko duen titulua ziurtatzeko zailtasunak dituzte. Sistema honen bitartez arazoa konpondua dago.

Bere sorreratik 2012ko irailean pilotu proba ezberdinak egin ditu online heziketa eskaintzen duten zenbait unibertsitate, negozio eskola eta administrazio publikoekin. Dozena bat proiektutan dabil orain, bai nazioan baita nazioartean ere (Amerika latinoan, Europa eta Asian).

Smowltech *Cool Vendors in High Education 2014* bezala izendatu du Gartner nazioarteko aholkularitzak. Gainera, beste start-up lehiaketetan finalista izan da, hala nola Bstartup 2013, CICD start-up 2014 and Toribio Echevarria 2013 eta 2014.

<http://www.smowltech.com>

**VK**Comunicación

**Informazio gehiagorako:**  
**Patricia Loredó Sierra**  
**Telf.: 944 01 53 06. Mugikorra: 629 74 90 47**  
**E-posta: [patricia@vkcomunicacion.com](mailto:patricia@vkcomunicacion.com)**